Museum hours,

Jem Cohen. 107 min. Austria-EEUU, 2012. VOSE

Ipar Amerikako musika under-groundaren birak, backstageak eta kamerari egindako begiradak erretratatzen abilena izan den zuzendariak oholtzak eta gitarra akoplatuak albo batera utzi eta Vienako Arte Historia museoan barneratuko da. Bertan aurkitzen duena agian ez dago garaje batean ozen entzuten den etsipen kanta batean gerta litekeenetik hain urrun: berrogeita hamar urte inguruko museoko zaindari baten eta turista kanadiar baten arteko istorioa, bizitzari buruz galdezka ari diren bi bakartirena.

Elurtutako basoak, trenak, hiriko kanpoaldea, abandonaturiko lantegiak... Jem Cohenen pelikula askotan gertatzen den bezala, paisaia pertsonaia bat gehiago da, tonua markatzen duena, Viena elurpean. Jem Cohenen pelikula askotan gertatzen den bezala, pertsonaiek eta deriban dabilen 16mmko Bolex kamerak egiten dute gainontzekoa: bata Montrealetik iritsi berri den turista bat da, bestea gaztea zela rock taldeen managerra izandakoa. Biak ustekabean museoaren aretoetan aurkitzen dira. Eta Brueghelen margolan klasikoen artean eta AC/DC eta Judas Priesten inguruko solasaldiekin egiten du aurrera saiakera pelikula honek, non dokumentala eta fikzioa, bizitza eta artea gurutzatzen diren, askatasun osoaren jardunbidearen adierazgarri.

Pelikulak kantuak egiten diren bezala egitea izan daiteke kontsigna. Amaierako kredituek asmoak baieztatzen dituzte: irudiak Vic Chesnutt musikari apartari eskainiak baitaude, eta honen guztiaren produktore exekutiboak Guy Picciotto (Fugazi taldeko gitarra jole eta abeslaria izan zena) eta Patti Smith izan dira.

“Denbora askoan ikusi ez duzun lagunik baduzu? Non dauden ere ez dakizun lagunak?” galdetzen du neskak pelikulako momentu batean. Eta erantzuna, triste xamarra den horietakoa, samina den horietako abesti baten hasiera edo bukaera izan daiteke. Zeren agian, guzti hau ere (aurrera doan bizitza, Viena, heldutasuna, iragana, ezagunak ez diren hiriak, ezusteko topaketak, ziurgabetasuna, etorkizuna...) musika, gure musika, barruan daramaguna, izan daiteke.

Museum hours,

Jem Cohen. 107 min. Austria-EEUU, 2012. VOSE

El director de cine que mejor ha retratado el underground musical norteamericano en sus giras, backstages y miradas a cámara, abandona los escenarios y las guitarras acopladas y se adentra en el museo de Historia del Arte de Viena. Y lo que encuentra en sus salas quizá no sea tan diferente a lo que sucede en cualquier canción desesperada sonando a todo volumen en un garaje: la historia de un guardián de museo cincuentón y una turista canadiense, dos solitarios, haciéndose preguntas sobre la vida.

Bosques nevados, trenes, periferia urbana, fábricas abandonadas... Tal como sucede en muchas de las películas de Jem Cohen, el paisaje sigue siendo un personaje más, el que marca el tono, Viena bajo la nieve. Tal como sucede en muchas de las películas de Jem Cohen, los personajes y la deriva de la cámara Bolex de 16mm hacen el resto: ella es una turista recién llegada desde Montreal que no conoce a nadie en la ciudad, él fue manager de bandas de rock cuando era joven, ambos se encuentran por casualidad en las salas del museo. Y entre pinturas clásicas de Brueghel y conversaciones sobre AC/DC y Judas Priest avanza esta película ensayo donde lo documental y la ficción, la vida y el arte, se cruzan en un gesto de libertad total.

Hacer películas como se hacen canciones, podría ser la consigna. Los créditos finales confirman las intenciones: las imágenes están dedicadas al genial músico Vic Chesnutt y los productores ejecutivos de todo esto han sido Guy Picciotto (el que fuera guitarrista y cantante de Fugazi) y Patti Smith.

“¿Tienes amigos a los que no has visto en mucho tiempo? ¿Amigos que ya no sabes dónde están?”, pregunta ella en un momento de la película.
Y la respuesta, una de esas un poco tristes, una de esas un poco amargas, podría ser el inicio o el final de una canción. Porque quizá también todo esto (la vida avanzando, Viena, la edad adulta, el pasado, las ciudades desconocidas, los encuentros fortuitos, la incertidumbre, el futuro...) sea música, nuestra música, la que llevamos dentro.

Urtarrilak 29, CIRCUITO- B ALDEA

Zine Independentearen Zirkuituaren B aldean, bezperako proiekzioen osagarri izango diren eta film horiei testuingurua emango dieten ekitaldiak eskainiko dira Sukaldean.

Mirar arder el fuego, el cine de Jem Cohen.
19:00tan Sukaldean (Atotxako Dorreen beheko lokalak).
Ramón Ayala y Javier Manterolaren eskutik.

Lehen saio honetara, Ramón Ayala gonbidatu dugu. berak, Jem Cohenen obran barrena ibilbide bat proposatuko digu. Ramónek pelikulak egiten ditu, bideoklipak zuzentzen ditu eta mugimendua duten irudi eta musikari buruz idazten du Rockdelux, Neo2 eta Scopen. Larry Clark, Jia Zhang-ke, Barbet Schroeder eta Terrence Davies-i buruzko liburuak ere idatzi ditu.

Javier Manterola Lisabö taldeko kantari eta gitarrajolea da. Jem Cohenen lanetan ohikoak diren musika taldeen inguruan hitz egiteko eskatu diogu: Fugazi, Vic Chesnutt, Patti Smith, The Ex...

Zuri beltzeko kontzertu baten antzeko saioa izango dela pentsatu nahi genuke proposatzen dugun hau: pelikula zatiak, bideoklipak, gitarra elektriko bat eta binilo batzuk.

---

29 de enero, CIRCUITO- CARA B

En la cara B del Circuito de Cine Independiente se propondrán actividades que acompañen y contextualicen las películas proyectadas el día anterior. En Sukaldea.

Mirar arder el fuego, el cine de Jem Cohen.
A las 19:00 en Sukaldea (Bajos de la Torre de Atocha)
Por Ramón Ayala y Javier Manterola.

Para esta primera sesión hemos invitado en primer lugar a Ramón Ayala, que trazará un itinerario por la obra fílmica de Jem Cohen. Ramón hace películas, dirige videoclips y escribe sobre música e imágenes en movimiento en Rockdelux, Neo2 y Scope. También ha escrito en libros sobre Larry Clark, Jia Zhang-ke, Barbet Schroeder y Terrence Davies.

Javier Manterola es cantante y guitarrista de Lisabö. A Javi le hemos pedido que nos cuente algo sobre esos grupos de música que aparecen siempre en las películas de Jem Cohen: de Fugazi a Vic Chesnutt pasando por Patti Smith o los The Ex.

Nos gustaría pensar que esta primera sesión se va aparecer a un concierto en blanco y negro: con fragmentos de películas, videoclips, una guitarra eléctrica y algunos vinilos sonando.

TABAKALERA

CIRCUITO DE CINE INDEPENDIENTE

Circuito kultura-zentroei loturiko proiekzio aretoen sare bat da, areto komertzialetara iristen ez diren nazioarteko zinemaldietako filmak eskaintzea helburu duena. Circuitoko kide dira: Tabakalera, MUSAC, Centro Niemeyer, IVAC- Filmoteca eta CGAI.

Circuito es una red de salas de exhibición audiovisual ligadas a centros culturales, creada para posibilitar la proyección de películas del circuito internacional de festivales, que no tienen distribución en las salas comerciales. Son miembros de Circuito: Tabakalera, MUSAC, Centro Niemeyer, IVAC- Filmoteca y CGAI.